

Alkatearen probidentzia

Oñatiko Udaleko Brigadaren egoera ikusita, brigadako zerbitzuko arduradunak bere txostenean honakoa adierazi du: lan kargarengatik beste igeltseritzako peoi baten beharra dagoela hurrengo hilabeteetan datorren lana atera eta zerbitzua ondo bermatzeko.

190/2004 Dekretua, urriaren 13koa, euskal herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzeko dena, bere **58. Artikuluak** dio:

"1- Bitartekoen hautaketa egingo da gai horri buruz administrazio bakoitzak ezartzen dituen arauen arabera. Hautatzeko prozedurek, berdintasun, ageritasun, meritu eta gaitasun printzipioak bermatzen dituzten irizpideak izango dituzte oinarri, aldi berean irizpideok prozedura horiek ahalik eta zaluena izatea bideratzen dutela.

2- Berariazko araurik ez badago, hautaketa oro har egingo da funtzionario izateko edo aldi baterako enpleguaren poltsak eratzeko, izandako hautaketa prozesurik gainditu dutenen artean.

3- Giza-baliabideen kudeaketa eraginkorrari eragozten ez dion heinean, euskal herri administrazioek elkarri elkarlana eskainiko diote, bitarteko funtzionarioak izendatzeko xedez beren lan-poltsetan sarturiko langileak maileguan utziz.

4- Izangaiak hartzeko premiarik edo zailtasunik baldin badago, salbuespen bezala eta justifikaturiko memoria bitarteko delarik, enplegu zerbitzu publikoez baliatzeko aukera egongo da."

Halaber, abenduaren 30eko 11/2020 Legeak, 2022 urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, 19. artikuluan, honako hau xedatzen du: *"Ezin izango da aldi baterako langilerik kontratatu, ezta aldi baterako estatutupeko langilerik eta bitarteko funtzionarioen izendapenik egin ere, albuespenezko kasuetan izan ezik, eta premiazko eta atzeraezinazko beharrianak betetzeko."*

Oñatiko Udaleko igeltsero peoien lan poltsa agortuta dago. Bestalde, inguruko udaletan galdetuta, lan poltsetako hautagaiak interes eza adierazi dute.

Kontratazio bat egitea beharrezkoa da, zerbitzua ondo emateko. Horregatik, komenigarria eta beharrezkoa da enplegu zerbitzu publikoetatik hautagai bat izendatzea.

Hori guztia kontuan izanda, HONAKOA XEDATZEN DUT:

1.- Aparteko inguruabarrak gertatzen direlako eta premia larria dagoelako, igeltseritzako peoi postua, 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena, 10.1.a artikulua arabera, plaza hutsik dagoen bitartean, enplegu Zerbitzu Publikoak jakinarazitako lan-kategoria horretako hautagaiak aukeratuz. Hileko soldata gordina postuari dagokiona izango da.

2.- Honako hau eskatzen da:

Igeltseritzako peoia (C2)

Jardunaldia: %100

Hileko soldata gordina: igeltseritzako peoiari dagokiona

SINA4219fce-7e08-4380-9c7e-03fc641b9670

3.- Hautagaiak hautatzeko, balorazio irizpide hauek hartuko dira kontuan:

3.1.- Beharrezko prestakuntza

- Titulazioa: Eskola graduatua, LH edo parekoa
- B motako gidabaimena.
- Hizkuntza-eskakizuna: 1. Ez badauka titulu ofizialik udalak egingo du azterketa.

3.2.- Prestakuntza osagarria (10 puntu)

- Prestakuntza osagarria, deitutako lanpostuaren funtzioekin zerikusia duten gaietan (0,05 puntu ikastaro ordu bakoitzeko)
- 2.HE (2 puntu)

3.3.- Lanbide-esperientzia (gehienez 30 puntu)

- 0,20 puntu Herri Administrazioan eskainitako hilabete oso bakoitzeko, lortu nahi den lanpostuaren baliokide diren eginkizunetan (C2 sailkapen taldea), lan zerbitzuan jartzen duenaren arabera. Administrazioa toki administrazioa bada, 0,05 puntu gehituko dira hilabete oso bakoitzeko.
- 0,15 puntu Herri Administrazioan eskainitako hilabete oso bakoitzeko, ofizial lanpostuaren edo baliokidearen eginkizunetan (C2 sailkapen taldea), lan zerbitzuan jartzen duenaren arabera. Administrazioa toki administrazioa bada, 0,05 puntu gehituko dira hilabete oso bakoitzeko.
- 0,005 puntu sektore pribatuan eskainitako zerbitzuen hilabete oso bakoitzeko, lortu nahi den lanpostuaren baliokide diren eginkizunetan. Kontratua aurkeztu beharko da.

*** Oñatiko Udalak esperientzia eta formazioa ziurtatzeko eskatu dezake.**

4. Epaimahai kideak:

Brigadako arduraduna
Zerbitzuetako arduraduna
GGBB eta Antolakuntzako AOT

Oñatin, sinadura elektronikoa agertzen den datan
Alkatea
Sin.: Iزار Elorza Arregui



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	Igletseritzako peoia, LANBIDE
CSV/EKS:	SINAAa4219fce-7e08-4380-9c7e-03fc641b9670